## «3R GAZTEA» PROGRAMAREN 2025eko DEIALDIA, PROGRAMA ABIATZEAN LANGABEZIAN EDO ENPLEGU HOBEKUNTZAN DAUDEN EHUko TITULUDUNENTZAT

### ATARIKOA

Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 3ko 31/2025 FORU DEKRETUAren bidez (2025eko apirilaren 7koa BAO), Bizkaiko Lurralde Historikoan laneratzea sustatzeko Lan Berri Programaren 2025 ekitaldiko diru-laguntzen oinarriak eta deialdia ezarri ziren.

Lan Berri programaren hirugarren lerroan, kualifikazioa duten 30 urte arteko gazte langabeekin esku-hartze goiztiarreko programa bat ezartzen da, langabezia-egoeran edo enplegu-hobekuntzan badaude.

2025eko apirilaren 15ean, Euskal Herriko Unibertsitateak proiektu bat aurkeztu zion Bizkaiko Foru Aldundiari (Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari, zehazki) plan horren hirugarren ildoaren barruan, EHUko gazte tituludun kualifikatuentzako lan-orientazioko, lan aktibazioko eta lan-bitartekotzako neurriak abian jartzeko, gazteoi laneratzen edo enplegua hobetzen laguntze aldera.

Hori horrela, Euskal Herriko Unibertsitatea «3R GAZTEA» proiektuaren parte da, ikasketak amaitu dituzten 30 urte arteko pertsonen enplegagarritasuna hobetzeari begira. Helburu hori lortzeko, Euskal Herriko Unibertsitateak enplegu guneak ditu campus guztietan; Bizkaian, zehazki, Sarrikon eta Leioan ditu bulegoak.

Gainera, unibertsitateak langile kualifikatuak ditu tituludunei lanerako orientazio eta aktibazio egokia emateko.

Enplegu, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko Sailaren (Bizkaiko Foru Aldundia) Foru Diputatuaren

## CONVOCATORIA PROGRAMA «3R GAZTEA» 2025 DIRIGIDA A PERSONAS TITULADAS DE LA EHU, CUALIFICADAS, EN SITUACIÓN DE DESEMPLEO O EN MEJORA DE EMPLEO AL INICIARSE EL PROGRAMA

### PREÁMBULO

Mediante DECRETO FORAL 31/2025 de la Diputación Foral de Bizkaia, de 3 de abril (BOPV, 7 de abril de 2025), se establecieron las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2025.

En la tercera línea del plan Lan Berri, se establece un programa de intervención temprana con las personas jóvenes desempleadas de hasta 30 años con cualificación, en situación de desempleo o en mejora de empleo.

Con fecha 15 de abril de 2025, la Euskal Herriko Unibersitatea / Universidad del Pais Vasco presenta un proyecto a la Diputación Foral de Bizkaia (Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad) en el marco de la tercera línea del citado plan para la puesta en marcha de medidas de orientación, activación e intermediación laboral dirigidas a personas jóvenes tituladas de la EHU con cualificación, para facilitar su acceso al mercado laboral o mejora de empleo.

En esta dirección, la Euskal Herriko Unibersitatea / Universidad del Pais Vasco, forma parte del proyecto «3R GAZTEA» con el fin de mejorar la empleabilidad de las personas hasta 30 años que han finalizado sus estudios. Para esta finalidad, la Euskal Herriko Unibersitatea / Universidad del Pais Vasco cuenta con los centros de empleo en cada Campus y en concreto en Bizkaia, en Sarriko y en Leioa.

Así mismo, dispone de personal cualificado para aportar una adecuada orientación y activación laboral a las personas tituladas.

En virtud de la Orden foral nº 2665/2025, de 19 de mayo de 2025, de la Diputada Foral del

maiatzaren 19ko 2665/2025 Foru Aginduaren arabera, apirilaren 3ko 31/2025 diru-laguntzen deialdia ebazten da, eta, balorazio-irizpideak aplikatu ondoren, EHUri diru-laguntza bat ematen zaio titulatu berri diren 90 pertsonari enplegagarritasuna sustatzeko.

Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad (Diputación Foral de Bizkaia), se resuelve la convocatoria de subvenciones nº 31/2025, de 3 de abril, concediendo a la EHU, tras la aplicación de los criterios de valoración, una subvención para la promoción de la empleabilidad de 90 personas recién tituladas.

Programan parte hartuko duten pertsonek baldintza batzuk bete behar dituztenez, 31/2025eko Foru Aginduak zehaztutakoak, Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordeak «EHU 3R Gaztea programa»-ren deialdia onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen oinarriak:

Debido a que las personas participantes han de cumplir una serie de requisitos establecidos por el Decreto Foral 31/2025, el Vicerrectorado de Estudiantes y Compromiso Social resuelve aprobar y lanzar la presente convocatoria de "programa 3R Gaztea EHU" en los términos que se detallan a continuación.

## 1. OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA

Erabaki honen xedea da programan parte hartzeko deialdiaren oinarriak arautzea, programa 2025/2026an garatzen denean EHUn aurreko hiru ikasturteetan titulatu diren eta 30 urte edo gutxiago dituzten 90 pertsona hautatzeko. Parte hartzaileak langabezian edo enplegu hobekuntzako egoeran egon beharko dira baliatu ahal izateko lan orientazioko, lan aktibazioko eta lan bitartekaritzako neurriez beren enplegagarritasuna hobetzeari begira, lan-merkatuaren ziurgabetasuna, nazioarteko egoera geopolitikoaren ondorioz.

## BASE 1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA

La presente Resolución tiene como objeto regular las bases de la convocatoria para la participación de 90 personas tituladas en la EHU en los tres últimos cursos académicos y hasta 30 años de edad durante el desarrollo del programa previsto para el 2025/2026, en situación de desempleo o en mejora de empleo para que puedan beneficiarse de medidas de orientación, activación e intermediación laboral que permitan mejorar la empleabilidad en un contexto de incertidumbre del mercado laboral debido a la situación geopolítica internacional.

## 2. OINARRIA. HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaera egiten duten unean:

2.1. EHUn titulatua izatea, eta graduko edo masterreko unibertsitate titulu ofiziala edo unibertsitateko berezko titulu hori azken hiru ikasturteetan eskuratua izatea (2022/23an, 2023/24an eta 2024/2025ean).

2.2. Gehienez 30 urte izatea 2026an.

## BASE 2. REQUISITOS DE LAS PERSONAS ASPIRANTES

Las personas aspirantes habrán de reunir los requisitos que se enumeran a continuación en el momento de efectuar la solicitud:

2.1. Estar titulada en la EHU y haber obtenido la titulación oficial universitaria (Grado o Master oficial) o título propio universitario en los tres últimos cursos académicos (2022/2023, 2023/2024 y 2024/2025).

2.2. No cumplir más de 30 años de edad a lo largo del año 2026.

2.3. Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotea deialdi hau argitaratzen den egunean.

2.3. Estar empadronada en el Territorio Histórico de Bizkaia a fecha de publicación de esta convocatoria.

2.4. Lanbiden, Euskal Enplegu Zerbitzuan, enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea (EHUren enplegu guneetan eman daiteke alta Lanbiden) eta, egun, langabezian edo enplegu hobekuntzako egoeran.

2.4. Estar inscrita como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (en los Centros de Empleo de la EHU se puede realizar el alta en LANBIDE), en situación laboral actual de desempleo o mejora de empleo.

2.5. Dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zigor penalik edo administratiborik ez izatea, ez eta horretarako inolako debeku legalik ere (sexu bereizkeria egitearen ondorio diren zigorrak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren arabera).

2.5. No hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con la inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## 3. OINARRIA. ONURADUNEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK

## BASE 3. ACTUACIONES DIRIGIDAS A LAS PERSONAS BENEFICIARIAS

3.1. ***Lan orientazioa***

Honen helburua da laneratze prozesuan dauden pertsonei informazioa, bere egoera indibidualaren diagnostikoa, aholkua, motibazioa eta laguntza ematea. Honako neurri hauek eskaintzen ditu:

a) Interesdunaren diagnostiko indibidualizatua eta profila egitea.
b) Enplegurako ibilbide pertsonalizatua diseinatzea.
c) Laguntza pertsonalizatua ematea bere ibilbidea garatzen eta jarduera konpromisoa betetzen duen bitartean.
d) Interesdunaren curriculuma egitea, lanbide profila bere lanbide gaitasunen arabera zehaztuz.

Lan orientazioa banakakoa izango da.

3.1. ***Orientación Laboral***

Tiene por objeto la información, el diagnóstico de la situación individual, el asesoramiento, la motivación y acompañamiento de las personas en su proceso de inserción laboral. Comprende las siguientes actuaciones:

a) Diagnóstico individualizado y elaboración del perfil.
b) Diseño del itinerario personalizado para el empleo.
c) Acompañamiento personalizado en el desarrollo del itinerario y el cumplimiento del compromiso de actividad.
d) La definición del currículo, que refleje el perfil profesional en términos de competencias profesionales.

La orientación laboral será de carácter individual.

3.2 ***Lan aktibazioa***

Enplegua aktiboki bilatzeko teknikak aplikatzea:
- Sare sozialak.

3.2 **Activación *laboral***

Aplicación de técnicas para la búsqueda activa de empleo:
- Redes Sociales.

- LinkedIn.
- Enplegu atariak.
- Mugikorretarako aplikazioak.
- Bideo curriculuma.

- LinkedIn.
- Portales de empleo.
- Aplicaciones para móviles.
- Video currículum.

Zeharkako gaitasunetan gehiago zentratzen diren hautaketa prozesuak aztertzea.
Informazioa ematea lan merkatuaren egoeraz eta enplegu politika aktiboez.
Lan arloko legeriari buruzko informazioa ematea.

Estudio de procesos de selección, más enfocados a identificar competencias transversales.
Información sobre la situación del mercado laboral y políticas activas de empleo.
Información sobre la normativa laboral vigente.

3.3 ***Lan bitartekaritza***

Laneratze ibilbidean zehar laguntza emango zaie interesdunei, enpresekin harremanetan jarriz (enplegu foroetan) eta lan eskaintzak eskuratzeko planak diseinatuz.

Fase honetan balizko lan eskaintzak eta enpresen eta enpresa erakundeen langile premiak bilatu eta identifikatuko dira.

Identifikatuko dira lanpostuak eskuragarri dituzten sektore ekonomikoak, eta lanpostuon profil profesionalak aztertuko dira.

3.3 ***intermediación laboral***

Consistirá en el apoyo a las personas participantes en el itinerario de inserción para su incorporación al mercado laboral, mediante encuentros con empresas (foros de empleo) y desarrollo de planes de captación de ofertas.

Prospección e identificación de ofertas de empleo potenciales y de necesidades de personal por parte de las empresas y organizaciones empresariales.

Se identificarán los sectores de actividad económica que dispongan de puestos de trabajo y se estudiarán los perfiles profesionales de dichos puestos.

**4. OINARRIA. ESKABIDEAK AURKEZTEKO ERA**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren argitalpenaren hurrengo egunetik **2025eko urriaren 15era** arte izango da.

4.2. Eskaerak modu telematikoan aurkeztuko dira, EHUren Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegagarritasuna WEB orria erabiliz: [https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/eskaeratelematikoa](https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/eskaeratelematikoa)

4.3. Eskabideaz gainera, eskatzaileak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

**BASE 4. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES**

4.1. El plazo para la presentación de solicitudes será desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria hasta el **15 de octubre de 2025**.

4.2. La formalización de las solicitudes se realizará vía telemática a través de la página WEB de Prácticas, Formación Dual y Empleabilidad de la EHU: [https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/eskaeratelematikoa](https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/eskaeratelematikoa)

4.3. Junto a la solicitud, la persona solicitante deberá aportar la siguiente documentación:

- NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatua egotearen ziurtagiri eguneratua.

- LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuan alta emanda egotearen agiria (EABA)

- Curriculum vitae eguneratua PDF formatuan

4.4. Eskabidea bete ondoren, agiriak atxiki eta telematikoki bidali beharko da dena. Eskatzaileak eskabidearen frogagiri bat jasoko du posta elektronikoz berak eskabidean emandako helbidean, Jakinarazpenetarako.

4.5. Eskabidea, eskaera-orria erantsiz, EHUko erregistro elektronikoaren bitartez ere aurkeztu ahal izango da, Enplegu Guneak / Centros de Empleo (U02000340) zuzenduta.

https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/3r-gaztea-programa WEB-orrian eskaera-orria aurki daiteke.

Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) EHUren txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskabidea: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan; b) erregistro gaietan laguntzeko EHUren edo sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez; c) posta bulegoetan; eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Erregistro gaietan laguntzeko EHUren bulegoetan (https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-

- Copia del DNI, NIE o pasaporte.

- Volante de empadronamiento en el territorio histórico Bizkaia con fecha actualizada.

- Certificado de estar inscrita como demandante de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo –DARDE-.

- Currículum Vitae actualizado en PDF

4.4. Tras cumplimentar la solicitud y adjuntar la documentación y enviarla telemáticamente, la persona solicitante recibirá un resguardo de solicitud en la dirección de correo electrónico que figure en la solicitud para efectos de notificaciones.

4.5. La solicitud también podrá presentarse adjuntando la hoja de solicitud, a través del registro electrónico de la EHU, dirigido al Centros de Empleo (U02000340).

La hoja de solicitud está disponible en la WEB https://www.ehu.eus/es/web/enplegua/3r-gaztea-programa

Para ello se deberá utilizar alguno de los siguientes sistemas de identificación electrónica: a) Certificado Digital de Usuario de Izenpe, b) Tarjeta Universitaria de la EHU (Izenpe), c) DNI electrónico o d) Certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES.

Asimismo, podrá presentarse: a) en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público b) presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la EHU o de cualquier otra entidad perteneciente al sector público, a través de persona funcionaria pública habilitada c) en las oficinas de Correos, y d) en las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.

Las solicitudes y documentos presentados de manera presencial en las oficinas de asistencia en materia de registros de la EHU https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-

nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia) aurrez aurre aurkezten diren eskabideak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesdunak funtzionarioaren aurrean bere burua identifikatu eta horretarako adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, zeinaren bidez onartu ziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskabideak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistro

ordutegia serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

**5. OINARRIA. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDA**

**BASE 5. RELACIÓN DE PERSONAS ADMITIDAS Y EXCLUÍDAS**

5.1. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

5.1. Relación provisional de personas admitidas y excluidas.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren eskabideak aztertuko dira. Orduan, EHUko Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordeak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du EHUko «Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegagarritasuna» atarian.

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se procederá a la revisión de las solicitudes presentadas. Tras la revisión, el Vicerrectorado de Estudiantes y Compromiso Social publicará en el portal de Prácticas, Formación Dual y Empleabilidad de la EHU la lista provisional de personas admitidas y excluidas provisionalmente.

Behin-behineko zerrendan adieraziko da nork falta duen agiriren bat, eta zein den zehazki falta duena. Zeozer falta dutenek hamar egun baliodunеko epea izango dute akatsak konpontzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, zerrenda ohartaraziko da epe horretan akatsak zuzendu ezean ulertuko dela interesdunek atzera egin dutela eskarian, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluaren arabera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

En el listado provisional, se indicará, en su caso, las personas solicitantes que no han incluido todos los documentos y expresión concreta de los que falten, para que en el plazo de 10 días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se les tendrá por desistido de su petición, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5.2. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

5.2. Relación definitiva de personas admitidas y excluidas.

Akatsak konpontzeko epea amaitu ondoren eta eskabideak aztertuta, enplegurako baliabideen ikastarorako

Finalizado el plazo de subsanaciones, tras las revisiones de las mismas, se publicará el listado definitivo de personas admitidas y

onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da EHUko «Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegagarritasuna» atarian.

excluidas en el portal de Prácticas, Formación Dual y Empleabilidad de la EHU.

**6. OINARRIA. ERREKURTSOA**

Erabakiak amaiera emango dio administrazio bideari, eta beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, argitaratzen denetik hasita, urriaren 1eko 39/2015 Legeari jarraituz (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Aurrekoa gorabehera, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, erabakia argitaratzen denetik hasita. Berraztertzeko errekurtsoa jartzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri harik eta berraztertze errekurtsoaren berariazko edo isilbidezko erabakia eman arte.

**BASE 6. RECURSO**

Contra dicha resolución que agota la vía administrativa, cabe interponer potestativamente recurso de reposición en el plazo de un mes desde su publicación, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, lo anterior, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses desde la publicación. En el caso de haber interpuesto recurso de reposición, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta la resolución expresa o presunta del primero.

**7. PUBLIZITATEA**

7.1. Erabaki hau Interneten argitaratuko da http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua helbidean.

7.2. Deialdi honi dagozkion gainerako erabakiak eta egintzak EHUren http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua helbidean argitaratuko dira. Programari buruz interesekoa den beste edozein informazio ere bertan argitaratuko da.

**BASE 7. PUBLICIDAD**

7.1. La presente Resolución será publicada en la dirección de Internet http://www.ehu.eus/es/web/enplegua.

7.2. El resto de resoluciones y actos correspondientes a la presente convocatoria se publicarán en la dirección de Internet http://www.ehu.eus/es/web/enplegua. Por el mismo medio estará disponible cuanta información resulte de interés para el programa.

**8. OINARRIA. DATUEN BABESA**

Hautagaiak, eskabidea aurkeztearekin, bere datu pertsonalak lagako dizkio Euskal Herriko Unibertsitateari (IFK: Q-48/18001-B) eta baimena emango dio haiek tratatzeko laneratzeari buruzko jardueren memorietan eta enplegagarritasun txostenetan, hori guztia abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren esparruan (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Legea).

**BASE 8. PROTECCIÓN DE DATOS**

La persona aspirante junto con la solicitud, autorizará y consentirá, en el marco de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 diciembre de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales, el tratamiento y cesión de sus datos personales, para poder ser utilizados en materia relativa a inserción laboral, en memorias de actividades e informes de empleabilidad, a la Euskal

Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco / con C.I.F Q-48/18001-B.

Gainera, programan parte hartzeak oinarri guztiak erabat eta baldintzarik gabe onartzea dakar.

Asimismo, la participación en este programa supone la aceptación plena e incondicional de todas las bases.

**9. OINARRIA. DATAK**

3R GAZTEA programaren antolatzaileek jardueren egutegia baieztatuko dute, eta Interneteko Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegagarritasuna helbidean argitaratuko da.

Era berean, parte-hartzaileei horren inguruko edozein gorabeheraren berri emango zaie posta elektroniko bidez.

**BASE 9. CALENDARIO DE ACTIVIDADES**

El calendario de actividades se irá confirmando por parte de la organización del programa 3R GAZTEA y se publicará en la dirección de Internet Prácticas, Formación Dual y Empleabilidad.

Asimismo, se irá informando a las personas participantes mediante correo electrónico de cualquier circunstancia al respecto.

**10. OINARRIA. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hauek dira deialdi hau arautuko dutenak: (1) erabaki honetan ezarritako oinarriak; (2) 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, bereziki VI. idazpurua, izena duena «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Laguntzen eta Diru-laguntzen Erregimena»; (3) unean indarrean dagoen Dirulaguntzen Lege Orokorra; (4) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; (5) aplikatu beharreko gainerako legeak.

**BASE 10. RÉGIMEN JURÍDICO**

Esta convocatoria se regirá por: (1) las bases de esta Resolución; (2) el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, especialmente su Título VI, denominado "Régimen de Ayudas y Subvenciones de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi"; (3) Ley General de Subvenciones en vigor (4) Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (5) Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público (5) resto de normativa que resulte aplicable.

44146675S ASIER BLAS (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 44146675S ASIER BLAS (R: Q4818001B)
Fecha: 2025.09.15 10:54:04 +02'00'

Asier Blas Mendoza

EHUko Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordea /
Vicerrector de Estudiantes y Compromiso Social de la EHU